

3. DIRU ITURRIAK

Ibiltzen enpresa etorkizunera begira garatzen joan ahal izateko beharrezkoa da zerbitzu honetatik diru sarrera batzuk lortzea. Izan ere, bost kideok diru sarrera batzuk eduki behar ditugu, eta honez gain diru kopuru bat izan beharrezkoak ditugun baliabideak ordaintzeko eta hornitzaileei erosi behar dizkiogun produktuak ordaindu ahal izateko.

Diru sarrerak, laguntza teknikoen produktuak saltzetik (muletak, batak, gurpilazko aulkiak...) eta familiek behar dituzten zaintzak kudeatzetik aterako ditugu. Izan ere, auxiliar eta familiarren arteko bitartekari lana egiteagaitik diru kopuru bat ordainduko baitute familiek.

Beraz, *aktiboen salmenta* da enpresarentzat diru sarrera, produktuen salmentaren bidez eta *mailegua, retinga eta alokairua*, bitartekari lana gauzatzeagaitik. Gainera diru bakarreko diru sarrerak dira.

Gauzatu dugun kalkuluaren arabera, lehen hilabetean izango ditugun salmenta eta famili bezeroetatik 7.550 € irabazi izateko aurreikuspena egin dugu. Horrela lehen hilabetean gure nominak eta gastu finkoak ordaintzeko dirua izango dugu.